

BID-REX
Interreg Europe



European Union
European Regional
Development Fund

BID-REX Euskadi

Informazio-fluxuak



**Eragileekin egindako Eskualde mailako 3. Tailer
partizipatiboaren ondorioak**

2017ko azaroak 15

Ekoetxea Txingudi - Gipuzkoa

BID-REX EUSKADI: PROIEKTURA SARRERA


ZERGATIK HASI DUGU PROZESU HAU?

Erakunde eta ekimen askok, beren ekarpenekin, biodibertsitateari eta ekosistemak mantentzeko zerbitzuen inguruko zientzia informazio eta ezagutzen sorrerari laguntzen diote; informazio hori guztia funtsezkoa da erabakiak hartu, arauak garatu eta etorkizuneko estrategia politikoak zehazteko. Halere, egun ez dago informazio hori guztia bildu, laburbildu eta aztertzeko gai den eta erabakiak hartzea erraztuko lukeen onartutako eta egiaztatutako mekanismorik.

Egoera horri aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila BID-REX Europako proiektuan inplikatu da, **biodibertsitateari eta ekosistemen zerbitzuei buruzko interfaze zientifiko-politikoa indartzeko xedearekin, biodibertsitate biologikoaren babes eta erabilera iraunkorra, gizakion ongizatea eta garapen iraunkorra sustatzeko.**

PROIEKTUA

BID-REX Interreg Europe programak finantzatu duen proiektu europar bat da. 5 urteko iraupena du (2016ko apirila – 2021eko martxoa) eta **helburu bikoitza dauka**:



Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailarekin batera Europako beste 6 eskualdek hartzen dute parte (Katalunia, Nolfork konderrria – Erresuma Batua, Marche eskualdea – Italia, Ljubljana Marsh – Eslovenia, Iparraldeko Lautada Nagusiko eskualdea – Hungaria eta Valoina – Belgika).

Ikaste partekatuko prozesu hau **ondorengo emaitzak lortzera bideratua dago**:

- **Lehentasunak hobetzea** biodibertsitatearen arloko kontserbazio-ahaleginari dagokionean, biodibertsitatearen eta ingurumenaren inguruan eskuragarri dauden datuetan oinarrituriko metodoak erabiliz.
- **Gida bat.** Europako natura-ondareari babesteko esfortzuei emaniko funtsen eragina handitu ahal izateko biodibertsitateari buruzko datuak nola bildu eta erabili beharko genituzkeen azalduko du.
- Eskualdeen arteko trukearen ondorioz, inplikaturiko eragileek eta kideek **biodibertsitatearen inguruko datuak kudeatzeko beren gaitasunak hobetuko dituzte**

PARTE HARTZEKO SAIOA: DISEINUA ETA EDUKIAK

Dokumentu honetan Ekoetxea Txingudin (Irun-Gipuzkoa) 2017ko azaroaren 15ean egin zen **eskualde mailako hirugarren tailer partizipatiboan** bildutako ekarpen nagusien laburpena biltzen da. Tailer horretan 21 pertsonak hartu zuten parte.

Tailerra Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak antolatu zuen, 2017ko Biodibertsitateko Gizarte Foruaren esparruan, Innobasque erakundearen laguntzarekin. Tailerra Europan egiten ari den prozesuarekin batera iragan otsailean eskualde mailan hasitako prozesuari jarraipena emateko egin zen.

SAIOAREN IKUSPEGIA

Aurreko eskualde-tailerretan erabakiak hartu ahal izateko informazio-premiak (sendotasunak eta ahuleziak, biltzen den informazioaren egokitasuna, etab.) aztertu zituzten bitartean, hirugarren tailer hau informazio-fluxua ikuspegi desberdinetatik hobetzeko modura bideratu zen:

- Nola lagundu informazioa eskuratzen eta erabiltzen?
- Nola hobetu behar da sortzaileen, erabiltzaileen eta herri-administrazioen arteko koordinazioa eta elkarlana? Bakoitzak zer eginkizun izan behar du? Nola erakarri behar dira pertsona eta erakunde garrantzitsuak?
- Nola zabaldu behar da biodibertsitateari buruzko informazioaren erabilera behar ez dutela uste duten agenteen artean?
- Nola gehitu dezakegu erabiltzaileen feedback-a informazio eskuragarria beharretara gero eta egokituagoa egotea lortzeko?

SAIOAN AZTERTUTAKO EDUKIAK

Lehendabizi, erakusketa bat antolatu zen, **proiektua eta ordura arte egindako tailer parte-hartzaileen (eskualde zein nazioarte mailan) emaitzak kokatzeko**. [AURKEZPENERA JOATEKO ESTEKA](#)

Halaber, eta aurretik egindako tailerretan erakunde arteko koordinazioa modu eraginkorragoan burutzeko beharra behin eta berriro eskatzen zela ikusirik, **mahai-inguru baten bitartez elkarriketa tekniko bat sortu zen, fluxu horiek hobetzeko garatu zitezkeen ekintzak aztertzeko**. Mahai-inguru horretan ondorengo pertsona hauek hartu zuten parte:

- Marta Rozas, Eusko Jaurlaritza
- Iñigo Moreno, Arabako Foru Aldundia
- Xabier Iturrate, Bizkaiko Foru Aldundia
- Jon Zulaika, Gipuzkoako Foru Aldundia
- Mario Saez de Buruaga, Consultora de Recursos Naturales

Beranduago, **bilkura-formatua landu zen** zuzendaritza anitzeko ikuspegitik informazio-fluxuak hobetuko dituzten **ekintza posibleak zirriborratzen saiatzeko**.




Ondoren, bilera horretan bildutako **ekarpenen laburpen egituratua** azalduko dugu.

BILDUTAKO EKARPEN NAGUSIEN LABURPENA


Erabakiak hartzeko informazio-fluxua hobetzeko ekintza posibleak zehaztu aurretik, bilkuran gehien errepikatutako alderdietako bat **erakunde arteko koordinazioa hobetu beharra zegoela izan zen**: koordinazio gehiago eta hobe, badauden baliabideak lerrokatzea, jarraipen-ekintzetan parte hartzea agente guztientzako parametro erabilgarriak barne hartuz, aprobetxatzea eta osatzea ekimen publikoak jarraipen-sareetara “lotuz”, atari bereziak eta zeharkakotasuna, etab. Halaber, erabakiak hartzeko (erakunde publikoak berak edo beste administrazio batek) informazio garrantzitsua eskura jartzea lehenesteak duen garrantzia azpimarratu zen.

Erakunde arteko lankidetzeta hobetzeko beharra



Zentzu horretan, **Eusko Jaurlaritzaren Naturari buruzko Informazio-sistemaren potentziala** azpimarratu zen, digitalizazioan eta, beraz, informazioaren eskuragarritasunean lagundu lezakeen gutxiegi erabilitako tresna gisa, ez bakarrik agente publikoen artean, baita agente pribatuen eskutan informazioa hobeto aprobetxatzeko ere.

Eusko Jaurlaritzaren Naturari buruzko Informazio-sistemaren potentziala



Bestalde, honako hauxe azpimarratu zen: administrazioen arteko informazio-fluxua nahikoa ez bada, **herritarrengana iristen den informazioa ere ez da nahikoa, eta horrek eragin argia dauka** biodibertsitatea babesteko **biztanle kritikoen eta aktiboen garapenean** (adibidez, alegatzeko informazio gutxiegi) **eta** biodibertsitatea baloratuko duen **kultura hiritar baten eraikuntzan** (adibidez, hurrekin lan egiten denean "interpretazio-giltzarri" gisa jarritako informazioa behar da).

Administrazioen arteko informazio-fluxu eskasen eraginak



Administrazioen arteko informazio-fluxua nahikoa ez bada, herritarrengana heltzen den informazioa ere eskasa da

Biodibertsitatea babesteko (adibidez, alegatzeko informazio eskasa) herritar kritikoak eta aktiboak garatzeko garaian eragin argia dauka

Baita biodibertsitatea baloratuko duen kultura hiritar baten eraikuntzan (adibidez, hurrekin lan egiten denean "interpretazio-giltzarri" gisa jarritako informazioa behar da) ere.

INFORMAZIO FLUXUA HOBETZEKO IDENTIFIKATUTAKO EKINTZAK

Jarraian, "ideia-jasako" ariketa baten ondoren erabakiak hartzeko informazio-fluxua hobetzeko saioan identifikatutako ideiak aipatuko ditugu:

1	Informazioaren "jabetzaren" eztabaida gainditzea , batez ere agente publikoek aholkularitzeari eskatutako txostenen kasuan (azterketaren jabe ez direnez informazio hori ez dute proaktiboki irekian jartzen), azterketa edo informazioa eskura egon gabe aipatzea. Azken batean, informazioa inbentariatzea, erreferentziatua (izenburua, edo izenburua eta laburpena) ez egon arren.
2	Biltzarretara joatea administrazioak sustatzen dituen lanak ezagutzera emateko , eta horrela, agente pribatuen artean ezagutza eta ikaskuntza trukatzeko aukerak sortzeko .
3	Lizitazioetan/azpikontratazioetan informazioaren interpretazioa egiten lagunduko duen ideia nagusien bertsio laburtua (txosten exekutiboa) edo eskema eskatzea, informazio hori hobeto ulertzeko . Ekintza hori kontratazio komunitario eranskinak garatuz eta/edo erabiliz osa daiteke. Eranskin horietan datuak nola entregatu behar diren adierazteko obligazioa egongo da, egilea eta jabea bereiztuz.
4	Informazio "erreskatagarria" edo eraldatzen errazena identifikatzea , hainbat agente publikok dituzten formatutan bateratzea , eta "argienak" argitaratzen hastea.
5	Naturari buruzko informazio-sistema ebaluatzea erabilera-hesiak eta hobekuntza-eremuak identifikatzeko, bere asmoari hobeto erantzun ahal izateko helburuarekin.
6	Konprometituta dauden sailekin topaketa-foroak edo dinamika errepikariak sortzea , mugak (pertsonala, baliabide ekonomikoak, etab.) ezagutzeko eta

	adostasunak edo desadostasunak zein alderditan dauden ikusteko.
7	Administrazioen arteko lankidetza handiagoa sustatuko duen araudia garatzeko beharra baloratzea, esparru politikoetatik haratago eta maila tekniko batean zentratuz.
8	Pertsonen / profesionalen / informazioa partekatzeko prest dauden —gaien arabera eta kontaktuekin— agenteen direktorio bat Naturari buruzko Informazio-sisteman argiago/errazago ezartzea, peer to peer lankidetza sustatzeko. Ekintza osagarri gisa, “kanpaina” motaren bat garatzea proposatu da, sisteman profil gehiago edukitzeko, ezagutza- eta lankidetza-sare bat sortzeko lehen urrats gisa.
9	Eginkizun hori administrazioetako teknikarien esku gera ez dadin, sentsibilizazioa eta kontzientziaketa sustatzeko dibulgazioko materialak dituzten tarteko agenteekin lotura bultzatzea.
10	Parametro “berriekin” indartzea komunikazioa (adibidez, “influencer” deitutakoak biodibertsitateko jardunaldietara gonbidatuz). Parametro horiek digitalizazioa berezko duen taldearen ikuspegia (ideia-jasa pertsona gazteekin ere bai) gehituko dute eta talde horri prestatzeko aukera emango diote informazioa eskaini dezan (ikus-entzunezko elementuak sortu).
11	Informazioaren eskuragarritasuneko eta publizitateko irizpidea gehituko duten hainbat urtetarako laguntzak garatzea, horretarako aurrekontua erreserbatuz. Txosten historikoak prozesatzeko aurrekontu-sailak bideratzea.
12	Informazioa partekatzeko garaian, agente aktiboenentzako ordainsari- edo itzulkin-ekintzak diseinatzea eta ezartzea.
13	Plataformaren balioa transmititzen agente aktiboak izatea, adibidez, agente jabeari bertara informazioa gehitzeko baimena eskatuz edo, zona edo gai zehatz baten inguruan datuak sortzen aritzen diren agenteak bilduz.
14	Arrakasta izan duten kasuak analizatzea bertatik ikasteko (adibidez, Gasteizko IGO) eta dibulgazioko ekimen pribatuak (adibidez, erakusketa ibiltariak) hobeto aprobetxatzen laguntzeko.

KONPROMISO PERTSONALETIK EKINTZA KOLEKTIBORA

Ariketa hori amaituta, bertaratu ziren pertsonen ekintza bat aukera zezaten eskatu zitzairen. Horrela, ekintza horretan oinarrituz, biodibertsitatearen esparruan erabakiak hartzeko informazio-fluxua hobetuko duen lankidetza-sare bat eraikitzen hasteko.

Hurrengo orrialdean bertan parte hartu zuten pertsonen aukeratutako ekintzak ikus daitezke. Ekintza horiek kontuan hartuta, **sistema berri honen oinarrien arabera**, Euskadin biodibertsitatea babesten lan egiten duen pertsona eta agente bakoitzaren **egiteko eta izateko moduak, hau da, prozesuak eta balioak aldatu egin behar direla** ikus daiteke.

EKINTZA – ... egingo bagenu	ERAGINA – ... lortuko genuke
Teknologia berriak gehiago eta hobeto erabiltzen baditugu	Herritarrekin komunikazioa hobetuko dugu, eta jardunaldietan urtero partaide berriak izango genituzke
Lana gorai patzen badugu (izendatuz, sari ekonomikoaren bitartez)	Pertsona hori informazio-sistemaren barruan mantenduko dugu eta agente aktibo bat izango da
Azterketa bat kontratatzen badugu, eta bertako baldintzen agirian informazioa nola jaso nahi dugun eta Jaurlaritzaren plataforman zerk egon behar duen eskuragarri zehazten badugu	Informazio-fluxua hobetzea lortuko dugu pertsona gehiagok eskuratu ahal izango dituztelako datu horiek
Informazio-sistema bakarra garatzera heldu arte koordinatzen bagara	Asko aurreratuko genuke, gure atarien egoerak ez lukeelako garrantzirik edukiko
Bakoitzak duen informazioa erreferentziatzen eta identifikatzen badugu	Informazio guztia denon eskura egongo da
Agenteak hobeto identifikatzen baditugu	Informazio gehiago eta azkarrago lortuko dugu
Gutxiago egiten badugu, gogoetarako eta estrategia bat osatzeko une bat hartuz eta lehenetsiz	Gehiago lortuko dugu, premiazkoa dena egitetik garrantzitsua dena egitera igaroko garelako
“Herritar mailako” prestakuntza eta sentsibilizazioa azpimarratzen badugu	Parte-hartze eta inplikazio handiagoa lortuko dugu
Gaur hitz egin dugunaren laurden bat gauzatzen badugu (kantitatearen ordezkari kalitatea hartzea)	Eraitza onak lortuko ditugu
Informazioa erakusteko garaian mesfidati jokatzeko ez badugu	Sistematik gehiago lortuko dugu
Egiten ditudan lanak partekatzen baditugu	Erabilgarriak izango dira, ez bakarrik pertsonentzat baita lortu nahi duen helburuarentzat ere
Ondo egiten duguna komunikatzen ikasten badugu	Bi gehi bi lau baino gehiago izango dira: etengabeko ebaluazioaren eta hobekuntzaren ikuspegitik egiten dugun lana sendotuko duten jardunbide egokiak sortuko ditugu
Informazioa, datuak eta ezagutza ondo bereizten baditugu	Sortutakoari balio handiagoa emango diogu
“Sinesdunen” artean komunikazioa hobetzen badugu (partekatu, elkar ulertu, hitz egin...)	Aurrerantzean egingo duguna hobetuko da, jada badagoenetik abiatuko garelako: gaur egun garenetik izan nahi duguna eraikiko dugu
Modu proaktiboan gizarteratzen badugu	Herritarrak gehiago konprometituko dira

EKINTZA – ... egingo bagenu	ERAGINA – ... lortuko genuke
Gaur hitz egindakoaren inguruko gogoeta egiten badugu eta ez ahaztea lortzen badugu	Gure erakundearen ekintza bat jarriko dugu abian
Bertara etortzen diren herritarrei gertutasunetik erantzuten badiegu	Higadura-bide bat itxiko dugu eta zubiak eraikiko ditugu mesfidantzak gaituz